

ZANGOTRABA

JUAN KRUZ
IGERABIDE

n a r r a t i b a

re in

ZANGOTRABA

Narratiba, 83

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2014ko martxoan

Maketazioa:
Erein

© Juan Kruz Igerabide

© EREIN. Donostia 2014

ISBN: 978-84-9746-888-6

L. G.: SS-492/2014

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Juan Kruz Igerabide

ZANGOTRABA



*Oroitzeko asmatu zen idazmena,
baina ahazteko ere erabiltzen da.*

Kozkor bat euripean

Intziri batek esnatu ninduen kolpetik.

Edurne ez esnatzarren kontuz-kontuz ohetik jaikirik, leihora jo nuen hanka-punttetan zirrikitu bat irekitzera, kontraleihoan erabat askatu gabe, kanpoaldetik ikus ez nintzaten. Zirrikitutik begiratu nuen kalera, argia itzalirik, eztarrian bihotztaupadak gogor punpaka; kostata ito nuen eztul bat. Edurne zurrunga gozotan zetzan, seko lo. Kanpoan, euri-jasa, taigabe.

–Lagundu, mesedez, ai, ai, aiii! –ziztatu zidan osteraren belarria txilio zorrotzak; enaren txioen antza hartu nion–. Auxilio, ai, ai, aiii!

Etxe aurreko lorategia edo dena delako hori dagoen malkartxoan, kozkor lauso zuri bat jo nuen begiz, euri-jasak erdi ezabatua, aldirietako kale honetako argi ahulak ozta-ozta nabarmendua. Kozkor hura astun mugitzen zen. Txilioak areagotu egin ziren.

–Auxiilio, ai, ai, ai! Ez al dago inor?

Besoa zirudien luzakin bat mugitu zen kozkorretik, eta zuhaitz txiki bati heltzen saiatu, zutik jartzeko ahaleginetan, baina ezin.

–Zer izan da hori? –esnatu zen Edurne, aztoraturik.

–Baten bat lorategian etzanda dago, jaiki ezinik.

Zegoen leku hartaraino erortzeko, sastraka gainetik irauli eta maldan behera piririka amildua behar zuen kozkor zuriak.

–Laguntzera jaitsi beharko da, Edurne.

Gure pottolak, jauzi batez jaikirik, bizkarretik besarkatu ninduen.

–Ez arriskatu, Joxe, ez jaitsi.

Barrenak, ordea, besterik agintzen niri: ezin nintzen geratu besoak tolesturik, zirrikitutik begira.

–Euri-jasa honekin, Edurne, bertan seko geratzeko arriskuan dago. Dionisiori deituko diot.

Aski izan nuen Dionisioren izena aipatzea gure potola lasaitu zedin. Extremaduratik etorri eta lana gogor eginez familia aurrera aterea zuen gizonkote hark berebiziko konfiantza ematen zigun bioi ala bioi.

Edurne leihotik zelatan utzita, galtzak eta anorak txanodun bat jantzi nituen, eskaileretara irteteko. Aldameneko etxebizitzako tinbrea jo nuen, ezker-eskuin bizi baikinen Dionisioren familia eta gu.

Berehala agertu zen Ixabel, kamisoi hutsean, eskote zabaletik bular oparoak irteteko zorian. Hari azalpenak ematen hasi aurretik, Dionisioren irudi erraldoia agertu zen korridorearen hondotik, kamiseta hutsean, gerrikoa lotuz.

–Norbait, lorategira amilduta, laguntza eske dago –adierazi nien–. Ez dakit nola pasatu den sastraken gainetik horraino.

–Apustu egingo nuke total egina dagoela –bota zuen Dionisiok.

Kamisetaren gainetik zira bat jantzi zuen. Bera aurren buruan jarrita, bizkor-bizkor gidatu ninduen eskaileretan behera. Ixabel, berriz, etxebizitzako ate ondoan geratu zen,

mutu. Gu sarrerako atera iritsi aurretik, Isabelen eta Edur-
neren ahotsak entzun nituen, gure atzetik eskaileretan behera
zetoze.

Euria goi-behe, gupida gabe. Sastraka gainetik igaro gi-
nen kozkorerraino iristeko. Dionisio makurtu zen aurrena;
segituan, alkandora blaitutik tiraka erakarri zuen herrestan.
Kozkorrak ez zuen txiliorik egiten orain; eztarria itxi enarari,
nonbait. Euriak lausoturiko kale-argi ahularen pean, ezin
izan genion aurpegia ikusi, nor ote zen edo.

–Dardarka zegok, Joxe. Lagunduidak zutiarazten.

Dionisiok beso batetik heldu zion, eta nik bestetik. Ja-
sotzerakoan, kozkorren aurpegia nirearen parez pare geratu
zen, musu ematera baletorkit bezala. Zorabiatzeko moduko
alkohol-kiratsa zerion, ozpindua.

–Honek zeramak aitzurra, honek –esan nion Dionisiori.
Kozkorra ez zen gauza pauso bat ere emateko.

–Gogor-gogor zegok –adierazi zidan Dionisiok–.
Pixka bat gehiago, eta hortxe geratuko zuan, zurrun. Espa-
loira atera behar diagu.

Sastraka ertzeraino arrastaka eraman genuen, hankak
ez zituen-eta bermatzen.

–Pasa hadi bestaldera, eta eutsiok –eskatu zidan Dio-
nisiok.

Jauzi egin nuen sastrakaren bestaldera, arintasun han-
dirik gabe ordea, oreka galtzeko zorian. Dionisiok gerritik
heldu zion kozkorri eta sastraka gainetik pasatu zidan, erraz
baino errazago. Niri, aldiz, ez zitzaidan hain arina gertatu pisu
zurrun hura, eta beso artetik irrist egin zidan. Hormigoizko

espaloian, berebiziko kankatekoa atera zion kaskezurrak, oso goitik botatako harri baten antzera. Ixabel eta Edurne orduantxe heldu ziren, besoak luzaturik, kozkorrari eusteko alferrikako keinuak eginez.

Enara berpiztu egin zen bat-batean, eta lehen bezala txilioka hasi zen berriro.

–Auxilio, ai, ai, aiii!

Dionisiok zaku-patata bat bezala jaso zuen bizkarrera.

–Autora sartu behar diagu.

Dyane Garen giltzak poltsikoan nituen. Atea ireki nuenean, txilioak areagotu egin ziren, Dionisio bere onetik ateratzeraino.

–Hago isilik, edo, bestela, hementxe botata utziko haugu!

Enara mututu egin zen.

Autoaren atzeko ate bat zabaldu nuen. Kostatu zitzai-gun kozkorra eserlekuan kokatzea, laurok tiraka edo bultzaka, elkarri behaztopa eginez. Ez zegoen modurik belaunak tolestarazteko; beraz, erdi etzanda jarri genuen, alderik alde.

–Esku-argirik ba al duk, Joxe?

Baneukan txiki bat autoan. Piztu, eta argi egin nion kozkorrari. Alkandora zuria blai-blai eta lokazturik zeukan; beraz, eserlekua ere bustirik eta lokazturik egongo zen. Nazka eman zidan. Aurpegira zuzendu nion esku-argia, gutxika, ez izutzearren. Begiak zabal-zabalik zituen, zirkinik egin gabe. Dionisiok lepoko zaina haztatu zion. Gero, esku-argia kendu zidan, aurpegi lohituia bete-betea argitzeko; belar zatiak ere bazeuzkan masailetan. Une batez begira egon

eta gero, Dionisiok *da* bota zuen esku-argia eserlekura, eta alden du egin zen autotik. Euriak ez zuen ikusten uzten lorategitik harago. Auzokoak zelatan egongo zirela pentsatu nuen, kontraleiho itxien zirrikituetatik begira.

Ixabel kamisoi hutsean eta Edurne kamiseta eta kulero-tan, titi-muturrak gogorturik biak, dardarka zeuden, eta etxera itzuli ziren, keinu batez “moldatuko zarete” adieraziz, hitzik esan gabe, euri-jasaren doinua urratu nahi ez balute bezala.

Dionisiorengana gerturatu nintzen, zalantzati.

–Zer gertatzen da?

–Ikusi al duk nor den?

Autora itzulirik, esku-argiaz berriro aztertu nion aurpegia kozkorrari. Begiak mugitu zituen; gero, hitz batzuk ahoratzen saiatu zen.

–Lagundu... –ulertu nion, arnasa etenen artean.

Azkenean, ezagutu nuen. Dionisiorengana itzuli nintzen jo eta ma.

–Zer egingo dugu orain? –galdetu nion.

Dionisiok ostiko jo zion lurrari.

–Nigatik, hil dadila.

Geldi-geldi egon ginen euripean, hankak eta galtzarbarenak busti-busti. Ni ez nintzen nor kontu hartan erabakirik hartzeko, ongi asko nekien hori. Dionisiori zegokion. Prest nengoen nire lagunaren nahia onartzeko, hark jasadakoa jasan eta gero.

Une batzuetako zalantzen ondoren, Dionisiok besotik heldu zidan.

–Eraman dezagun zerri hori bere askara.

Isilik heldu nion bolanteari.

–Non bizi haiz? –galdetu zion Dionisiok kozkorrari.

Erantzuten ez zionez, paparretik heldu eta astindu egin zuen, galdera errepikatuz. Kozkorrak zezelka erantzun zion:

–Kolon ibilbidea –eta zenbaki bat errepikatu zuen hiru bider.

Azeleragailua sakaturik, Irungo kale bakartiak zeharkatu genituen euripean. Kolon ibilbidea ere hutsik zegoen. Kozkorrak adierazitako zenbakiaren parean gelditu nuen autoa. Kostata altxatu genuen kozkorra eserlekutik, eta ibiltzera behartu, hasieran arrastaka, gero pauso baldarrez. Ateraino iristean, gauza zen bere buruari eusteko, esku bat paretan bermatuta. Poltsikoan bila hasi zen. Giltzak ateratzen lagundu behar izan nion, eta atea ireki.

Giltzak eskura itzuli nizkion, eta ilunpean barneratu zen. Atea itxita, paretan bermaturik jarraitu zuen eskaileretara bidean, balantzaka. Ezta esker-keinu bat ere. Bistatik galdu genuenean, autora itzuli ginen bizkor.

–Goazen ostia batean, okaka has nadin baino lehen –eskatu zidan Dionisiok, gau isil haren erdian; euria atertua zuen, eta Kolon ibilbideari zuri-beltzezko distira zerion, zine mutuko fotograma baten pare.

Etxera iritsita, dutxa bat hartzen ari nintzen bitartean azaldu nion Edurneri nor “salbatua” genuen, atetik sartu nintzenetik ez baitzidan bakerik eman galdezka; izena esan nionean, hitzik gabe geratu zen.

–Oheratu gaitezen –eskatu zidan.

Ez nion zurrungarik entzun gau osoan.

Juan Fernandez, detektibe pribatua

Hau dena oroitzuz balkoitik kalera begira nagoela, egongelatik datorren Glass-en musikak itsaso bihurtzen dit burmuina, behin eta berrizko olatuekin. Balkoiko burdinen arteatik begiratzen diot lorategiko malkarrari: nire bizitzaren amildegia dirudi. Balkoi-hesiaren ertzera igo eta goitik behera jauzi egiteko potrorik banu, alkandora zuriz jantzirik, zerbait zuria, bai, zentzurik gabeko existentzia honi amaiera gaiztoa emateko... a zer goragalea eragiten didan orain Sartreren existentzialismoak, garai batean hain gogoko nuen hark; larridura existentziala, notejode, aberaskume intelektual mainoso mainatu baten txilioak: bere denboratxoari zentzurik aurkitzen ez omen; agian, merezi uste bezain irabazle sentitzen ez zelako? Benetako larridura, ordea, ez existitzea duk, zero, hutsa, izurriteak joa, Camus. Alkandora zuria jantzi, eta goitik behera, plost, kito. Baina Glassen musikaren uhinek oroimenaren itsasoa behin eta berriz pizten didate; soldadu bat irudikatzen dut, Otto Dix-en grabatu batean, fusila eskuan, kanoia lagun hilaren belaun tolestuaren azpitik sartuta... tiro-punik ez, patuaren esanetara destatu besterik ez, badatoz uhinak, badoaz uhinak, uhinak besterik ez musikan.

Nire oroimenak atzerago jotzen du, neure bizitzako negozioirik oparoena asmatu nuen garairaino; negozioia txikia

zen egituraz, baina eraginkorra eraginkorrik bada. Aduana-agentzia bat zabaldu nuen bulegoz beteriko pabiloi industrial batean; Joxe Aduana Agentzia jarri nion izena. Bakarrik egi-ten nuen lan, neure gisara. Urte haietan, Irunen, perretxi-koen pare jaiotzen ziren aduana-agentziak, mugaldeko ne- gozioak etekin oparoa ematen baitzion zenbait amarrutxo ikasten zituenari.

Nik, hala ere, aduanakoaren aitzakian, trikimailu hobe- asmatu nuen: beti izan naiz detektibe-nobelak irakurzale, Holmes nerabezaroan, Higsmith gaztaroan, eta Chandler hel- duaroan; orobat zorutzen ninduten antzerkiak, mozorroek, inauterietako janzkerak. Horrez gainera, hemen azaltzea me- rezi ez duen amodio-porrot baten ondorioz, misantropo samar bihurturik nenbilen aldi hartan, eta, barru mindua suspertzeko edo, Francoren kontrako mugimenduko ekintzaileekin ha- rremanetan sartu nintzen; haiekintxe berdintzen nuen exis- tentziak eragiten zidan amorru guztia. Mugimendu hartan eza- gutu nuen Edurne; haren izaera eta nirekiko berehala erakutsi zuen jaiera gustagarri gertatu zitzaizkidan: hasieratik bete-be- tean entregatu zitzaidan, gozo, hala gorputzez nola arimaz, eta horrek biziki eztitu zidan barru mindua, galdutako autoesti- mua berreskuratzeraino, hein batean behintzat. Hasieratik bertatik kontsolamendu izan nuen Edurne, maitemin baino gehiago. Maitale kamaradak ginen batik bat.

Aduana-agentzia jarri nuenean, orduantxe etorri zitza- idan aukera aspalditik buruan nerabilen grina ezkutua gauza- tzeko: detektibe izatea, nerabezarotik nekarren asmoa betetzea. Denbora luzean Pariseko agentzia batera asteburuetan joanez

ikastaro bat egin eta gero, maitasun-kontuetan espezializatu nintzen. Neure asmoa ahalik eta modurik ezkutuen eta eraginkorrean bete ahal izateko, mozorro bat asmatu nuen, nortasun berri bat, doble bat, normalean nintzenaren kontrakoa, ondo jantzia, txukuna, berez zabar samar ibiltzen bainintzen alde guztietan. Nortasun berriarekin beste bulego bat alokatu, aduanakoaren aldamenean, eta hantxe jarri nuen neure detektibe-agentziazkoa, Juan Fernandez Detektibe Pribatua. NAN eta pasaporte faltsuak eskuratu nituen, eta detektibe lizentzia bat ere bai, garai hartan Parisen igel-tsero zebilen anarkista espainiar batek artezki eginak guztiak; banuen lehendik ere haren berri, izan ere nire familia, Bera Bidasoakoa, estraperloan nahiz iheslariak bestaldera pasatzen ibilia zen; anarkista harengandik lortzen zituzten orduan ere iheslari askorentzat nortasun-agiriak. Dena dela, nire jatorria eta familia-gorabeherak ez dira narrazio honetako kontuak.

Aduana-agentziak galera besterik ez zidan ekartzen, ez bainuen ia batere lanik egiten hartan, itxurari eusteko enkargu batzuk izan ezik. Detektibe-agentzia, aitzitik, hasierako hilabeteetan lehor samar jardun ondoren, gero eta sosa gehiago ematen hasi zitzaidan, batik bat gona-kontuak eta bihotz desleialak ikertzen espezializatu nintzelako eta kontu haietan jendeak eskuzabal ordaintzen zuelako; neure espezialitatean, eskualdeko profesionalik eraginkorrena bihurtu nintzen, mugaren bi aldeetan, eta urrunago ere bai gerora, sarri Madrilera, Parisera edo Bartzelonara joan behar izaten bainuen; hartarako, Hondarribian edo Miarritzen hartzen

nuen hegazkina, eta egun berean itzultzeko moldatzen nintzen. Edurne, lagun giroan elkarrekin denbora batez ibili ondoren, nire etxera etorri zen bizitzera; hari ere ez nion inolako aztarnarik eman neure dobleaz, arreta handiz zaintzen bainuen sekretua, susmo txarrik piztu gabe. Behar izanez gero, bizpahiru egun ere igaro nitzakeen etxetik kanpo, Aduanako gorabeheren aitzakian. Oso zuhur jokutzen nuen, nire joko bikoitza agerian utz zezakeen egoera oro saihestuz.

Auzi-mauzi horietan sartu arte, ezin da imajinatu ere egin zenbat obsesio, saldukeria, mesfidantza, sentipen ezkutu, interes lotsagarri... kabitzen diren pertsonen bihotzburuetan. Nik, inondik ere, berezko trebezia nuen kontu irristagarri horietan ia inor jabetu gabe mugitzeko, nahiz eta arriskurik ez zen falta. Horrez gainera, banuen lanabes harriarri bat –aurrerago emango dut haren berri, zehatz-mehatz–, eta halako tresnak aukera ematen zidan susmagarrien sekreturik ezkutuenak ere agerian jartzeko, oso arrisku gutxi hartuta. Bezeroak aserik uzten nituen behintzat, eta eskura ordaintzen zidaten, batzuetan halako kopuruak non aita zenak entzunez gero txapelak jauzi egingo baitzion buruan.

Neure bikotekidea bera zelatatzeko tentazioari ere ezin izan nion eutsi, Edurne gajoa. Jeloskorra naiz berez, eta nire lanbide sekretuak berezko joera hori areagotu baino ez zidan egin; neure itzalaz ere mesfidati nintzen. Morbo berezia eragin zidan gure ipurtandia zelatatzeak, berak susmorik txikiena ere atera gabe. Behin, Edurnek lan egiten zuen gau-eskolako komunetan ezkutatu nintzen, jendearen sartu-irtenak zelatatzera, Frantzian eresia nuen periskopio txiki japoniar bat

baliaturik, susmoa bainuen Edurne gau-eskolako irakasle segail batekin ote zebilen. Komunean mutil harekintxe sartzen harrapatu nuen azkenean, baina, nire harridurarako, bakoi-tza bere txokora joan zen beharrak egitera. Eraikinetik inork ikusi gabe irten nintzen, erbinude baten pare. Ez dakit zergatik, hankartea bero-bero nuela iritsi nintzen etxera, eta, gauean, oheratu bezain laster, Edurneri eskutik heldu nion eta bere pubisa igurtz zezan saiatu nintzen, eta gero alua, baina berak ez zuen jarraitu nahi izan; nahiago izan zuen niri idiarena bizkor jo, atzea eman, eta lo hartzea.

–Nahi al dun heuri egitea? –galdetu nion, eskuaren ertza ipurdi erretenean sartuta.

Eskua kendu zidan, erabat esnatu gabe, eta nigandik aparteago jarri zen, lotan jarraitzeko.

Nire espioitza-lanak ez zidan eman inolako arrastorik gure ipurtandiaren balizko desleialtasunaz, nahiz eta bane-kien gau-eskolak oso leku aproposak zirela harreman erra-zetarako, gutxien uste nuenean egiazta baitzitezkeen nire sus-morik txarrenak.

Hein handi batean, detektibe gisa nuen arrakasta Juan Fernandez benetako nortasunaren berri inork ez izatean zetzan. Oso modu zehatzean antolatu nuen neure bizimodu bikoitza, erloju baten mekanismoaren pare. Lehen orduan, neure aduana-agentzian egiten nuen lan, eta, gero, detekti-bearen bulegora igarotzen nintzen, bi gelen tartean eraikia nuen armairuan barrena; nik neuk egina nuen armairu hori, eta bi bulegoak komunikatzeko ate antzemanekin bat jarri nion, zurgintzan ondo moldatzen bainintzen, nerabezaroan

zenbait udatan aitonari laguntzen ibilia nintzen-eta Bidasoko Beran zeukan zurgindegian. Aduanakoaren alboko bulegoan hartzen zituen bezeroak Juan Fernandez detektibeak; bisita gutxi izaten zituen, baina oso onuragarriak. Batzuetan, hitzorduak hiriko leku bakartietan gertatzen ziren, diskrezio handiz, hala detektibearen aldetik nola bezeroarenetik.

Juan Fernandez detektibe bihurtzeko, traje grisa eta gabardina baliatzen nituen; Joxe gisa, berriz, garai hartako mobidakoen antzera jantzirik ibiltzen nintzen, kanguru zeritzan xira eta guzti. Detektibeak bizar-orde eta ileorde beltz sarria jartzen zituen orobat; benetako ilea gorritzat nuen, ez oso ugaria. Juan Fernandezek inoiz ez zituen kentzen beturreko beltzak eta kapela, ezta gauzez ere; bestalde, Joxe ez bezala mugitzen zen, askoz tenteago, askoz simetrikoago; kei-nukera, ahots-tonua izugarri zaintzen zituen, antzezlaririk edo imitatzailearik trebatuenaren pare. Nortasuna erabat bestelakotzen entrenatu nintzen, ahotsa barne.

Juan Fernandez gisa, beti prest izaten nuen detektibelizentzia, poliziak eskatuz gero ere. Ahalegintzen nintzen, dena dela, poliziarekin ahalik eta tratu gutxien izaten; gaizkile-kontuetan ez nintzen sartzen, jakina, eta polizia ere ni-reetan sar ez zedin saiatzen nintzen. Gainera, nik ikertzen nituen auziak oso ezkutuan konpontzen ziren, hala bezeroaren aldetik nola detektibearenetik. Alabaina, ahalik eta ezkutuen ibilita ere, Juan Fernandez detektibearen ospea egunetik egunera handiagotuz zihoan.

Pistolarik ez nuen. Nire arma bakarra argazki-kamera japoniarra zen, zoom on batekin. Besterik ez nuen behar.

Oinez edo taxian mugitzen nintzen, eta trebezia handia nuen talaia ezkutuetatik susmagarriak zelatzeko. Oso noiz-behinka, daratulu txiki bat erabiltzen nuen, japoniarra hura ere, ia hotsik ateratzen ez zuena, paretetan zulo fin-finak egin eta haietan nire periskopio mehea sartzeko. Bide onetik nembilela ziurtatzeko baino ez nuen baliatzen periskopioa; izan ere, proba erabakigarriak argazki-kameraz eta zoom ahaltzuaz lortzen nituen.

Juan Fernandezek ospea eskualdetik kanpo zabaldu zen; detektibe-agentziak gero eta dei eta hitzordu gehiago jasotzen zituen. Jende aberatsa etortzen zen gehienetan, ondo ordaintzeko arazorik izaten ez zuena. Harriturik geratzen ziren kasuak hain azkar eta garbi argitzen nituelako. Ez zuten askorik susmatzen zer trikimailu erabiltzen nuen hartarako: erradiestesiatiko pendulu bat, hain zuzen ere; Bestaldean ikasitua nuen haren erabilera, Miarritzen egindako ikastaro batean. Hartarako dohainak neuzkala berehala antzeman-edo zidan erradiestesia-irakasleak. Klase partikular batzuk ere eman zizkidan, tresna ondo menderatu arte; batik bat, argazkiak eta mapak aztertzen moldatzen nintzen ondoen. Dohain haiek neure onurarako erabiltzea erabaki nuen, neure lanbide berrian aurrera egiteko, inori martingalaren berri eman gabe, inor nire nortasun bikoitzaz jabetu gabe, ezta Edurne eta lagunik lagunena ere. Horretantxe zegoen arrakastaren koska, eta horri eutsi behar nion. Edurne eta biok elkarrekin bizitzen jarri ginenean, Joxe gisa irteten nintzen etxetik, eta Joxe gisa itzultzen, eta egunean zehar gertatzen zen itxuraldaketaz inork ez zuen susmorik ere.

Oso gutxitan huts egiten zidan erradiestesiak. Oker ir-
teten zenean, metodo ortodoxoagoak erabili behar izaten ni-
tuen eta lan luzeagoa eta nekagarriagoa egin behar noski.
Baina halakoak oso noizbehinka gertatzen zitzaizkidan. Nire
teknika erradiestesiakoa oso sinplea zen: aski nuen bikti-
maren aurpegiaren argazki bat; hura ibili ohi zen eskualde-
aren mapa baten gainean jarri, eta pendulari galdezka has-
ten nintzen pare-parean. Galderak egiteko, ikastaroan
ikasitakoa egokituz eskema sinple bat osatua nuen; pendu-
luak bi erantzun ematen zizkidan: baietz (eskuinera jiraka)
edo ezetz (ezkerrera jiraka); erantzuna ezinezkoa bazen, gel-
dirik egoten zen. Galdera egokiak une egokian egitea zen
kontua, eta saioaren harira galdera bat-batean aldatzeko tre-
bezia izatea. Denbora gutxian, trebeetan trebe bihurtu nin-
tzen pendulari galdetzen eta susmagarria nondik nora ze-
bilkeen mugatzen.